



**2018**

*XXI edizioa*

**EUSKADILITERATURASARIAK  
PREMIOS LITERATURA EUSKADI**

**2018**

**Literatura Gaztelaniaz / Literatura en Castellano**

**Euskarazko Haur eta Gazte Literatura / Literatura Infantil y Juvenil en Euskera**

**Saiakera Euskaraz / Ensayo en Euskera**

**Euskarazko Literatura Itzulpena / Traducción Literaria en Euskera**

2018ko urriaren 17n / 17 octubre de 2018

PRENTSA OHARRA  
NOTA DE PRENSA**Karmelo C. Iribarren, Leire Rodriguez, Kepa Altonaga eta Irene Aldasoro dira aurtengo Euskadi Literatura Sarietako gainerako irabazleak**

- *Literatura Gaztelaniaz, Euskarazko Haur eta Gazte Literatura, Saiakera Euskaraz eta Euskarazko Literatura Itzulpena modalitateetako irabazleak izan dira, hurrenez hurren.*

Bilbo, 2018/10/17

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburu Bingen Zupiriak ezagutzera eman ditu Euskadi Literatura Sarietako azken lau irabazleak, Bilboko Azkuna Zentroan izandako prentsaurreko batean. Orain dela bi aste lehen hiru modalitateetako irabazleak aditzera eman ostean, gaur honako modalitateetako saridunak ezagutu dira: Literatura Gaztelaniaz, Euskarazko Haur eta Gazte Literatura, Saiakera Euskaraz eta Euskarazko Literatura Itzulpena.

- Literatura Gaztelaniaz: Karmelo Caballero Iribarren, *Mientras me alejo*.
- Euskarazko Haur eta Gazte Literatura: Eider Rodriguez, *Santa Familia*.
- Saiakera Euskaraz: Kepa Altonaga, *Patagoniara Hazparden barrena*.
- Euskarazko Literatura Itzulpena: Irene Aldasoro, *Gailur Ekaiztsuak* (Emily Brontë).

Zupiria sailburuak nabarmendu duenez, Eusko Jaurlaritzak eman baina zazpi epaimahai espezializatuak erabakitzen dituzten sari hauek bi helburu nagusi dituzte: sortzaileen lana aitortzea eta agerikoagoa egitea. "Sari hauei esker gehiago hitz egiten da gure sortzaileek egindako literaturaz. Gure literatura jomugan jartzen dugu, saridunek egiten dutena eta gainontzekoa", adierazi du Zupiriak. Datorren azaroaren 27an banatuko dira aurtengo Euskadi Literatura Sariak, Gasteizko Artium Museoa egingo den ekitaldi batean. Egun horretan zazpi modalitateetako irabazleak izango dira; iragan urriaren 1ean lehen hiru irabazleak eman ziren ezagutzera.

- Euskarazko Literatura: Eider Rodriguez, *Bihotz handiegia*.
- Saiakera Gaztelaniaz: Santos Zunzunegui, *Bajo el Signo de la Melancolía*.
- Literatura Lanaren Ilustrazioa: Yolanda Mosquera, *La pequeña Roque* (Guy de Maupassant).

Saridun bakoitzak 18.000 euroko saria izango du, eta beste 4.000 euro eskura ditzake bere lana beste hizkuntza batean argiratzen bada.

Gaur ezagutzera emandako lau modalitate hauen inguruko informazio guztia hurrengo orrialdetan kontsulta daiteke.

PRENTSA OHARRA  
NOTA DE PRENSA**Karmelo C. Iribarren, Eider Rodriguez, Kepa Altonaga e Irene Aldasoro completan los Premios Euskadi de Literatura de esta edición**

- *Se han impuesto en las modalidades de Literatura en Castellano, Literatura Infantil y Juvenil en Euskera, Ensayo en Euskera y Traducción Literaria al Euskera.*

Bilbao, 17/10/2018

El consejero de Cultura y Política Lingüística, Bingen Zupiria, ha dado hoy a conocer las y los ganadores de las cuatro modalidades de los Premios Euskadi de Literatura que quedaban por ser desveladas, después de que el pasado 1 de octubre se dieran a conocer los tres primeros premios. En una rueda de prensa que ha tenido lugar en Azkuna Zentroa, el consejero ha anunciado las y los premiados en las modalidades de Literatura en Castellano, Literatura Infantil y Juvenil en Euskera, Ensayo en Euskera y Traducción Literaria al Euskera.

- Literatura en Castellano: Karmelo Caballero Iribarren. *Mientras me alejo.*
- Literatura Infantil y Juvenil en Euskera: Eider Rodriguez, *Santa Familia.*
- Ensayo en Euskera: Kepa Altonaga, *Patagoniara Hazparnen barrena.*
- Traducción Literaria al Euskera: Irene Aldasoro, *Gailur Ekaiztsuak* (Emily Brontë).

El consejero Zupiria ha indicado que estos premios, entregados por el Gobierno Vasco y elegidos a través de siete jurados especializados, tienen un doble objetivo: reconocer el trabajo de las y los creadores, así como hacerlo más visible. “Gracias a estos premios conseguimos que se hable un poco más de nuestra literatura. Logramos que se ponga el foco en la labor de las y los autores premiados, pero también de muchas y muchos otros”, ha señalado el consejero. Los Premios Euskadi de Literatura se entregarán el próximo 27 de noviembre en el Museo Artium de Vitoria-Gasteiz. Allí se reunirán las y los ganadores de las siete modalidades premiadas, incluyendo, por supuesto, los tres premios que se dieron a conocer hace dos semanas.

- Literatura en Euskera: Eider Rodriguez, *Bihotz handiegia.*
- Ensayo en Castellano: Santos Zunzunegui, *Bajo el Signo de la Melancolía.*
- Ilustración de una Obra Literaria: Yolanda Mosquera, *La pequeña Roque* (Guy de Maupassant).

Cada ganador recibirá 18.000 euros por este reconocimiento, a los que se sumarán otros 4.000 euros en caso de que la obra se publique en otro idioma.

Toda la información en torno a las y los ganadores de las cuatro modalidades que se han dado a conocer hoy se puede consultar en las siguientes páginas.



## EUSKADI LITERATURA SARIAK PREMIOS EUSKADI DE LITERATURA 2018

### Literatura Gaztelaniaz – Literatura en Castellano

Irabazlea - Ganador: **KARMELO C. IRIBARREN**  
Izenburua - Título: ***Mientras me alejo***  
Argitaletxea - Editorial: **Visor Libros**

### Euskarazko Haur eta Gazte Literatura – Literatura Infantil y Juvenil en Euskera

Irabazlea - Ganadora: **EIDER RODRIGUEZ**  
Izenburua - Título: ***Santa Familia***  
Argitaletxea - Editorial: **Ikastolen Elkarte**

### Saiakera Euskaraz – Ensayo en Euskera

Irabazlea - Ganador: **KEPA ALTONAGA**  
Izenburua - Título: ***Patagoniara Hazparnen barrena***  
Argitaletxea - Editorial: **Pamiela**

### Euskarazko Literatura Itzulpena – Traducción Literaria en Euskera

Irabazlea - Ganadora: **IRENE ALDASORO**  
Izenburua - Título: ***Gailur Ekaiztsuak (Emily Brontë)***  
Argitaletxea - Editorial: **Erein & Igela**



## EUSKADI LITERATURA SARIA

# LITERATURA GAZTELANIAZ

### 2018

#### Epaimahaia:

- Jon Bilbao, epaimahaiburua
- Maria Eugenia Salaverri, epaimahaikidea
- Isabel Muguruza, epaimahaikidea
- Iñaki Esteban, epaimahaikidea
- Jose Fernández de la Sota, epaimahaikidea

#### Saria eta saritua

Idazlea: Karmelo Caballero Iribarren

Izenburua *Mientras me alejo*

Argitaletxea: Visor libros

18.000 euroko saria eta 4.000 euroko saria lana beste hizkuntza batean argitaratzen baldin bada.

#### Epaimahaiaren arrazoiketa

Karmelo Iribarrenek idatzitako liburu txiki handietako bat da (guztiek ere obra oparoa eta aberatsa osatzen dute). Liburu horrek bikintasunez irudikatzen du idazlea, eta irakurle berriek autore donostiarra ezagutzeko lehenengo testua edo bere zaleentzako kapitulu berria izan daiteke. "Poeta barojatar" baten poesia errealista da, hau da, narratzailea, errealista eta erretorikarik gabea, baina sinpletasun zaila menperatzen duena eta sakontasunez irakurleak hunkitzeko lirismoa duena, isil-isilean *ni-tik gu-ra* joanez. Itxurakeriarik gabeko poesia, ironikoa eta malenkoniatsua, mundu honetako ohiko gauzez hitz egiten diguna, gizon eta emakume askoren barneko erbestealdiaz, gure bizitzaz eta bizitzaren "epika xumeaz", bizitzearen epika xumeari buruz mintzo dena hain zuzen ere. Hiria eta kaleak, eguneroko bizitza, errutina eta sentitzearen gozamena, oinez goazenean, euria, eguzkia edo haizea.

Iribarrenen poesia aurreko mendearen bukaera eta XXI. mende hasiera artean errotu da, eta hala, gaztelaniaz idatzitako erreferentzia lirikoa bihurtu da autorearen. Poesia inizatuen ingurutik ateratzea lortu du eta gazteenei hurbilarazi die. Era berean, ahots propioa du, eta bere eragina erraz atzeman daiteke poeten belaunaldi berrietan, eta hala, gaztelaniazko idatzizko poesian eragin gehien izan duten idazleetako bat da.

#### Karmelo Caballero Iribarren

Donostia, 1959.

Nerabea zenean lanean hasi zen askotariko enpleguetan, eta gertakari horrek eta bere prestakuntza autodidaktak bere obran eragin nabarmenak izan dituzte.

1995ean Karmelo Iribarrenek bere lehenengo lana argitaratu zuen, *La condición urbana* izenekoa. Ondoren, *Serie B* (1998) eta *Desde el fondo de la barra* (1999) lanak argitaratu ziren. 2005ean bere poesia osoa argitaratu zuen *Seguro que esta historia te suena* izenburuko lanean. Ondoren, honako lanak argitaratu ziren: *Ola de frío* (2009), *Versos que el viento arrastra* (2010), *Las luces interiores* (2013) eta *La piel de la*



*vida* (2013). 2014an Karmelo Iribarrenek *Diario de K* izeneko aforismo liburua argitaratu zuen, eta 2016an *Pequeños incidentes* izenburua duena.

### ***Mientras me alejo***

K.-ren liburu berri hau aurrekoak bezalako zentzuduna, sinplea, eraginkorra eta hunkigarria da. Beharbada urteak pasatzearen ondoriozko udazken zaporea du, baina hori normala da beti larritzen gaituen ziurtasun hori oinarri hartuta idazten dugunean, badakigulako denbora gutxiago geratzen zaigula, zahartzen ari garela. Baina gehien gustatzen zaigun K. oso-osorik dago, emakumea hiru neurtitz gogoangarri hauen bitartez goraiatzeko gai den hori; Zu hondartzan /-jasotzen-/ eta itsasoa etsita.”Luis Alberto de Cuenca

### **Aurreko edizioetako irabazleak**

- (1997) Ugarte, Pedro. *Los cuerpos de las nadadoras*, Ed. Anagrama.
- (1998) Fernández de la Sota, José. *Todos los santos*, Ed. Hiperión.
- (1999) Atxaga, Bernardo. *Lista de locos y otros alfabetos*, Siruela.
- (2000) Díaz-Mas, Paloma. *La tierra fértil*, Ed. Anagrama.
- (2001) Aramburu, Fernando. *Los ojos vacíos*, Tusquets editores.
- (2002) González San Martín, Miguel, *Pobeñeses*, Bassarai.
- (2003) Altarriba, Antonio. *La memoria de la nieve*, Espasa narrativa.
- (2004) Gil Bera, Eduardo. *Historia de las malas ideas*, Destino.
- (2005) Pinilla, Ramiro. *Verdes Valles, Colinas Rojas. 1. La tierra convulsa*, Tusquets.
- (2006) De Dios, Javier. *Comida para peces*, Hiru.
- (2007) Bas, Juan. *Voracidad*, Ediciones B.
- (2008) Leguineche, Manu. *El club de los faltos de cariño*, Seix Barral.
- (2009) Etxenike, Luisa. *El ángulo ciego*, Bruguera.
- (2010) Fernández De la Sota, José. *Vacilación*, Bassarai.
- (2011) Bilbao, Jon. *Bajo el influjo del cometa*, Salto de página.
- (2012) Márquez, Juan Carlos. *Tangram*, Salto de página.
- (2013) Pinilla, Ramiro. *Aquella edad inolvidable*, Tusquets Editores.
- (2014) Estornés, Idoia. *Cómo pudo pasarno esto*, Erein.
- (2015) Olmos, Martín. *Escrito en negro*, Pepitas de Calabaza.
- (2016) Ybarra Pasch, Gabriela. *El Comensal*, Caballo de Troya.
- (2017) Aramburu, Fernando. *Patria*, Tusquets Editores.



## PREMIOS EUSKADI DE LITERATURA

### LITERATURA EN CASTELLANO

## 2018

#### Jurado:

- Jon Bilbao, presidente del jurado
- Maria Eugenia Salaverri, vocal
- Isabel Muguruza, vocal
- Iñaki Esteban, vocal
- Jose Fernández de la Sota, vocal

#### Premio y premiado

Autor: Karmelo Caballero Iribarren  
Título: *Mientras me alejo*  
Editorial: Visor libros

Premio de 18.000 euros y 4.000 euros si la obra premiada se publica en otra lengua.

#### Razonamiento del jurado

Es uno de los pequeños grandes libros de Karmelo Iribarren (que conforman una obra copiosa y poderosa). Un libro que le representa de manera excelente y puede servir lo mismo de puerta de acceso a este autor donostiarra que de nuevo capítulo para sus numerosos lectores. Poesía realista de un “poeta barojiano”, es decir, narrativo, realista y ausente de retóricas, pero dueño de una difícil sencillez y un lirismo capaz de emocionarnos de manera profunda, yendo del yo al nosotros sin levantar la voz. Poesía sin afectaciones, irónica y melancólica, que nos habla de las cosas comunes de este mundo, del exilio interior de tantos hombres y mujeres anónimos, de nuestra propia vida y su “minúscula épica”, la minúscula épica del vivir. La ciudad y sus calles, la vida día a día, la rutina y los gozos de sentir, mientras caminamos, la lluvia, el sol o el viento.

La poesía de Iribarren se ha consolidado, entre finales del pasado siglo e inicios del XXI, como una referencia en la lírica escrita en castellano. Ha logrado sacar a la poesía de los círculos de iniciados y acercarla al público más joven. Al mismo tiempo, dueño de una voz propia, su influencia es visible en las nuevas generaciones de poetas, haciéndole uno de los autores más influyentes de la poesía escrita en el ámbito de la lengua española.

#### Karmelo Caballero Iribarren

San Sebastián, 1959.

Comienza a trabajar desde su adolescencia en diversos empleos, hecho que junto a su formación autodidacta marcan profundamente su obra.



En 1995 Karmelo Iribarren publica su primera obra, "La condición urbana", seguidas por "Serie B" (1998) y "Desde el fondo de la barra" (1999). En 2005 aparece su poesía completa bajo el título "Seguro que esta historia te suena". Posteriormente se publican: "Ola de frío" (2009), "Versos que el viento arrastra" (2010), "Las luces interiores" (2013) y "La piel de la vida" (2013). En 2014, Karmelo Iribarren publica el libro de aforismos "Diario de K", y en 2016 *Pequeños incidentes*.

### ***Mientras me alejo***

Este nuevo libro de K. es tan sabio, sencillo, efectivo y emocionante como los anteriores. Tal vez tenga un sabor otoñal que se deriva del paso de los años, pero eso es lo normal cuando escribimos desde la certeza, siempre agobiante, de que nos queda menos tiempo, de que vamos haciéndonos mayores. Pero está entero nuestro K. preferido, el que es capaz de celebrar a la mujer en tres versos memorables como estos: Tú en la playa /-recogiendo-/ y el mar desesperado." Luis Alberto de Cuenca


### **Premios de anteriores ediciones**

- (1997) Ugarte, Pedro. *Los cuerpos de las nadadoras*, Ed. Anagrama.
- (1998) Fernández de la Sota, José. *Todos los santos*, Ed. Hiperión.
- (1999) Atxaga, Bernardo. *Lista de locos y otros alfabetos*, Siruela.
- (2000) Díaz-Mas, Paloma. *La tierra fértil*, Ed. Anagrama.
- (2001) Aramburu, Fernando. *Los ojos vacíos*, Tusquets editores.
- (2002) González San Martín. Miguel, *Pobeñeses*, Bassarai.
- (2003) Altarriba, Antonio. *La memoria de la nieve*, Espasa narrativa.
- (2004) Gil Bera, Eduardo. *Historia de las malas ideas*, Destino.
- (2005) Pinilla, Ramiro. *Verdes Valles, Colinas Rojas. 1. La tierra convulsa*, Tusquets.
- (2006) De Dios, Javier. *Comida para peces*, Hiru.
- (2007) Bas, Juan. *Voracidad*, Ediciones B.
- (2008) Leguineche, Manu. *El club de los faltos de cariño*, Seix Barral.
- (2009) Etxenike, Luisa. *El ángulo ciego*, Bruguera.
- (2010) Fernández De la Sota, José. *Vacilación*, Bassarai.
- (2011) Bilbao, Jon. *Bajo el influjo del cometa*, Salto de página.
- (2012) Márquez, Juan Carlos. *Tangram*, Salto de página.
- (2013) Pinilla, Ramiro. *Aquella edad inolvidable*, Tusquets Editores.
- (2014) Estornés, Idoia. *Cómo pudo pasarno esto*, Erein.
- (2015) Olmos, Martín. *Escrito en negro*, Pepitas de Calabaza.
- (2016) Ybarra Pasch, Gabriela. *El Comensal*, Caballo de Troya.
- (2017) Aramburu, Fernando. *Patria*, Tusquets Editores.





Irabazlea - Ganador: **Karmelo Caballero Iribarren**  
Izenburua - Título: ***Mientras me alejo***  
Argitaletxea - Editorial: **Visor libros**





## EUSKADI LITERATURA SARIA

# HAUR ETA GAZTE LITERATURA

### 2018

#### Epaimahaia:

- Imanol Mercero epaimahaiburua
- Lore Agirrezabal epaimahaikidea
- Elisabet Mas epaimahaikidea
- Mikel Aierbe epaimahaikidea
- Irati Zaldua epaimahaikidea

#### Irabazlea eta sariaren nolakoa

Irabazlea: Eider Rodriguez Martin

Izenburua: *Santa Familia*

Argitaletxea: Ikastolen elkarte

18.000 euroko saria eta 4.000 euroko lan saritua beste hizkuntza batean argitaratzen bada.

#### Epaimahaiak ikusitako merituak

Bertute asko dituen literatur lana da Santa Familia. Ausarta bezain eraberritzailea da, komikiak literaturari eskaini diezaiokeen maila garaia lakin eredu garria.

Gaia ikuspuntu original batetik jorratzen da, familiaren kritika zorrotza bitarteko, nerabeak emantzipaziorako bidea nola egiten duen erakusten diguna. Obra honetan gurasoei egindako kritika, ordea, ez da ariketa apurtzaile antzu bat; aitzitik, irakurleari hausnarketarako bide ugari eskaintzen zaizkio, kasurako balizko xede irakurle den nerabearentzat nortasuna eraikitze lagungarriak izan daitezkeenak.

Berriaz egiten die ihes zuzenkeriei, konbentzionalismoen dekonstrukzioa eginez.

Testuak ironia eta sarkasmoa erabiltzen ditu umorezko tonu batean; karikaturaren eta azidotetasunaren bidez gag sorta zabala josten du, gazteen klabeen jaurtiak.

Teknika literarioa ez da nolana hiko: elipsiak erabiltzeko modua eta testuaren sintetikotasuna harrigarriki ongi kudeatzen dira hasieratik amaierara arte, ekonomia linguistikoa darion gidoi burutsu baten bidez.

Anbiguitasuna errekurtsu literario bezala erabiltzen da. Errealismo kritikoaren ingurumarian beti ere, une batetik aurrera protagonistak irudimenarekin egiten duen jolasaren eta zientzia fikzioaren arteko mugak lausotzera iristen da, irakurlearen parte hartze aktiboa eta interpretazioa ezinbestean interpelatuz.

#### Eider Rodriguez Martin

1977, Errenteria.

Publizitate eta Zinema ikasketak egin ditu. Editore eta gidolari lanetan jardundakoa, egun irakaslea da EHU-n. Lau ipuin-liburu kaleratu ditu: *Eta handik gutxira gaur* (Susa, 2004), *Haragia* (Susa, 2007) *Katu*



*jendea* (Elkar, 2010) eta *Bihotz handiegia* (Susa, 2017); Irene Nemirovskyren *Le bal (Dantzaldia)* nobelaren itzultzaile ere bada. Bere azken lana *Itsasoa da bide bakarra. Joseba Sarrionandia irakurriz* saiakera da.

### **Santa Familia**

Familia da emanda datorren gauza bakarra. Ez lagunak, ez bizimodua, ez ingurua, familia baizik. Norak, ordea, arau horri ihes egingo dio. Sekretu bat gordetzen du. Bere sekretua. Baina hura kontatzeko ordua iritsi da, eta sakratua den instituzioa eztanda egiteko zorian dago.

Jakina da, ordea, iraultza txikiak behar izaten direla gauzak bere onera ekartzeko.

### **Aurreko edizioetako irabazleak**

- (1997) Atxaga, Bernardo. *Xola eta basurdeak*, Erein.
- (1998) Zubizarreta Dorronsoro, Patxi. *Gizon izandako mutila*, Pamiela.
- (1999) Igerabide, Juan Kruz. *Jonas eta hozkailu beldurtia*, Aizkorri.
- (2000) Juaristi, Felipe. *Animalien inauteria*, Erein.
- (2001) Karlos Linazasoro. *Bota gorriak*, Anaia-Haritz.
- (2002) Meabe, Miren Agur. *Itsaslabarreko etxea*, Aizkorri.
- (2003) Morillo, Fernando. *Izar-malkoak*, Aizkorri.
- (2004) J. M Olaizola "Txiliku". *Osaba Bin Floren*, Elkar.
- (2005) Olaso, Xabier. *Pupuan Trapua*, Pamiela.
- (2006) Zubizarreta, Patxi. *Pantaleon badoa*, Pamiela.
- (2007) Meabe, Miren Agur. *Urtebete itsasargian*, Elkar.
- (2008) Añorga, Pello. *Jenio gaiztoa*, Aizkorri.
- (2009) Ruiz, Ruben. *Anekdotak*, Pamiela.
- (2010) Zubizarreta Dorronsoro, Patxi. *Xia Tenzinen bidaia miresgharria*, Ibaizabal.
- (2011) Meabe Plaza, Miren Agur. *Errepidea*, Erein.
- (2012) Zaldua Gonzalez, Iban. *Azken garaipena*, Euskal Herriko Ikastolak.
- (2013) Olaso Bengoa, Xabier. *Tximeletrak*, Pamiela.
- (2014) Cano, Harkaitz. *Orkestra lurtarra*. Elkar.
- (2015) Arrieta Malaxetxebarria, Yolanda. *Argiaren alaba*. Autoedizioa.
- (2016) Alberdi Estibaritz, Uxue. *Besarkada*. Elkar.
- (2017) Bilbao Barruetabeña, Lorea. *Xomorropoemak eta beste piztia batzuk*. Pamiela.



## PREMIOS EUSKADI DE LITERATURA LITERATURA INFANTIL Y JUVENIL

### 2018

#### Jurado:

- Imanol Mercero, presidente
- Lore Agirrezabal, vocal
- Elisabet Mas, vocal
- Mikel Aierbe, vocal
- Irati Zaldua, vocal

#### La ganadora y el premio

Ganadora: Eider Rodriguez Martin  
Título: *Santa Familia*  
Editorial: Ikastolen Elkartea

Premio de 18.000 euros y 4.000 euros en caso de que la obra premiada se publique en otro idioma.

#### Los méritos destacados por el jurado

Santa Familia es una obra literaria con muchas virtudes. Atrevida e innovadora, constituye una muestra ejemplar del elevado nivel que puede ofrecer el comic a la literatura.

El tema se desarrolla desde una perspectiva original, con una aguda crítica de la familia, que nos muestra el camino hacia la emancipación de la adolescente. La crítica dirigida a los padres en esta obra no es, sin embargo, un estéril ejercicio destructivo, sino que, al contrario, se ofrecen abundantes vías para la reflexión, que pueden servir de ayuda al posible lector adolescente en la construcción de su identidad.

Huye intencionadamente de la corrección, haciendo una deconstrucción de los convencionalismos.

El texto utiliza la ironía y el sarcasmo con un tono humorístico; mediante la caricatura y la acidez hilvana un amplio conjunto de gags que son lanzados en clave juvenil.

La técnica literaria se sale de lo común: la manera de usar las elipsis y el carácter sintético del texto son gestionados con sorprendente perfección de principio a fin, por medio de un ingenioso guión que destila economía lingüística.

La ambigüedad se utiliza como recurso literario. Siempre rondando por el realismo crítico, a partir de cierto momento se llegan a difuminar los límites entre el juego de la protagonista con su imaginación y la ciencia ficción, invocando inevitablemente la participación activa del lector y la interpretación.

#### Eider Rodriguez Martin

1977, Errenteria.

Ha realizado estudios de Publicidad y Cine. Con experiencia como editora y guionista, actualmente es profesora en la UPV. Ha publicado cuatro libros de cuentos: *Eta handik gutxira gaur* (Susa, 2004), *Haragia* (Susa, 2007), *Katu jendea* (Elkar, 2010) y *Bihotz handiegia* (Susa, 2017); asimismo ha



traducido al euskera la novela de Irene Nemirovsky *Le bal (Dantzaldia)*. Su última obra es el ensayo titulado *Itsasoa da bide bakarra. Joseba Sarrionandia irakurriz*.

### **Santa Familia**

La familia es lo único que viene dado. Ni los amigos, ni el modo de vida, ni el entorno: solo la familia. Sin embargo, Nora esquivará esta norma. Guarda un secreto. Su secreto. Pero ha llegado la hora de contarlo, y la institución que es sagrada está a punto de explotar.


Aunque, como es sabido, se necesitan pequeñas revoluciones para corregir las cosas.

### **Ganadores en las anteriores ediciones del premio**

- (1997) Atxaga, Bernardo. *Xola eta basurdeak*, Erein.
- (1998) Zubizarreta Dorronsoro, Patxi. *Gizon izandako mutila*, Pamiela.
- (1999) Igerabide, Juan Kruz. *Jonas eta hozkailu beldurtia*, Aizkorri.
- (2000) Juaristi, Felipe. *Animalien inauteria*, Erein.
- (2001) Karlos Linazasoro. *Bota gorriak*, Anaia-Haritz.
- (2002) Meabe, Miren Agur. *Itsaslabarreko etxea*, Aizkorri.
- (2003) Morillo, Fernando. *Izar-malkoak*, Aizkorri.
- (2004) J. M Olaizola "Txiliku". *Osaba Bin Floren*, Elkar.
- (2005) Olaso, Xabier. *Pupuan Trapua*, Pamiela.
- (2006) Zubizarreta, Patxi. *Pantaleon badoa*, Pamiela.
- (2007) Meabe, Miren Agur. *Urtebete itsasargian*, Elkar.
- (2008) Añorga, Pello. *Jenio gaiztoa*, Aizkorri.
- (2009) Ruiz, Ruben. *Anekdotak*, Pamiela.
- (2010) Zubizarreta Dorronsoro, Patxi. *Xia Tenzinen bidaia miresgharria*, Ibaizabal.
- (2011) Meabe Plaza, Miren Agur. *Errepidea*, Erein.
- (2012) Zaldúa González, Iban. *Azken garaipena*, Euskal Herriko Ikastolak.
- (2013) Olaso Bengoa, Xabier. *Tximeletrak*, Pamiela.
- (2014) Cano, Harkaitz. *Orkestra lurtarra*. Elkar.
- (2015) Arrieta Malaxetxebarria, Yolanda. *Argiaren alaba*. Autoedizioa.
- (2016) Alberdi Estibaritz, Uxue. *Besarkada*. Elkar.
- (2017) Bilbao Barruetabeña, Lorea. *Xomorropoemak eta beste piztia batzuk*. Pamiela.



Irabazlea - Ganadora: **Eider Rodriguez**  
Izenburua - Título: ***Santa Familia***  
Argitaletxea - Editorial: **Ikastolen Elkartea**





## EUSKADI LITERATURA SARIAK

## SAIAKERA EUSKARAZ

2018

## Epaimahaia:

- Arantxa Urretabizkaia epaimahaiburua
- Mitxelko Uranga epaimahaikidea
- Monika Madinabeitia epaimahaikidea
- Agurtzane Elordui epaimahaikidea
- Alberto López epaimahaikidea

## Irabazlea

Irabazlea: Kepa Altonaga Sustatxa  
Izenburua: *Patagoniara Hazparnen barrena*  
Argitaletxea: Pamiela

## Epaimahaiak ikusitako merituak

Istorio harrigarria bezain zoragarria da liburu honetan Kepa Altonagak irakurleoi eskaintzen diguna. Kutsu milenaristaren aztarnak dituen istorioa kontatzen digu. Euskaldunak Ameriketara Euskal Herri berria sortzeko ibilbidean, Bilbotik Hazparnera eramango gaitu; eta Hazparnetik Argentinako Patagoniara, behin eta berriro, joan eta etorrian.

Baina abentura horren inguruan gertatutakoa baino askoz gehiago iradokitzen digu liburu honek. Euskal Herritik kanpora joandakoei presentzia ematen die eta horrela, euskal diasporarako hurbilpena ere bada. Atzean duen dokumentazio lan itzela agerian da testu osoan baina, idazlearen trebezi bereziari esker, erraz murgilduko da irakurlea istorioan. Istorioa jakin-mina piztu duen eran kontatuta baitago.

Maisulana, dudarik gabe, eredu literariorik begiratzen badiogu ere. Idazketa samurra, arina, estilo freskoa eta dinamikoa du, baina, aldi berean, mamitsua da oso. Berebiziko abilezia agertu du, gainera, zehar aipamenak egoki erabiltzeko eta bere testugintza aberasteko moduan txertatzeko. Askotan, han eta hemen, lapurteraren oihartzunak ekartzen dizkigun eredian, maisua da Altonaga bere jatorrizko bizkaieratik hartutako hitzak eta joskerak ere uztartzen.

## Kepa Altonaga Sustatxa

1958, Loiu.

Biologia-ikasketak Euskal Herriko Unibertsitatean egin zituen. Zoogeografia eta Ornogabe Ez-Artropodoen Zoologia irakasten ditu Zientzia eta Teknologia Fakultatean. Eusko Legebiltzarrak Munibe Saria eman zion bere ikerketa-taldeari 1992an.

Argitaratutako liburuak: *Folin marka: marraskiloak eta euskaldunak uharte galduan* (Elhuyar, 1998), *Armand David, pandaren aita* (Elhuyar, 2001), *Etxepare, Aldudeko medikua* (Euskaltzaindia/EHU, 2006), *Darwin geurean* (Pamiela, 2010), *Arnaut Abadiaren zoo ilogikoa* (Pamiela, 2011) eta *Back to Leizarraga* (Pamiela, 2015).



### ***Patagoniara Hazparnen barrena***

Oroitzapen batetik abiatuta eta Obaban zehar, Lotilandiako garaietaraino hurbilduko gara Kepa Altonagaren eskutik. Aldamenean daukagu mundu hori, baina guztiz ezezagun bilakatu zaizkigu horko parajeak eta biztanleak, eta ahaztu egin dugu bere historia.

Gizakume bi gailentzen dira *Patagoniara Hazparnen barrena. Lotilandiakoak herri birlandatuan* honetan. Florentzio Basaldua (1853-1932) bilbotarrak du protagonismo nagusia: Ameriketara doa oso gazterik, eta bertan eraiki nahi du Euskal Herri berri bat, hango zabaldi haindigaitzetan. Janpierre Arbelbide (1841-1905) garaztarra da kontrapuntua: “hori ez da amets bat beizik” idatzi zuen, baina predikatu nahi die Ameriketara joandako euskaldunei.

*Patagoniara Hazparnen barrena. Lotilandiakoak herri birlandatuan* liburu intrigagarri eta mamitsua da, zeinean aurkituko baititugu bai Ameriketara turrustatu zen jende –uholde ikaragarri hura- tartean Daniel Lizarralde mekikua, Juana Canut maistra lapurtarra, Otaño eta Mendiaga bertsolariak, edota Agnes Souret ezpeletarra, lehen miss Frantzia izandakoa-, eta bai, bestalde, Betiri Santsen negar-herri honetan geratu zirenak ere..

### **Aurreko edizioetako irabazleak**

- (2010) Azurmendi Otaegi, Joxe. Azken egunak Gandiagarekin, Elkar.
- (2011) Sarrionaindia, Joseba. *Moroak gara behelaino artean?*, Pamiela.
- (2012) Mujika Iraola, Inazio. *Xabier Lete (Auto)biografia bat*, Alberdania.
- (2013) Sudupe Martija, Jon. *Oi Europa!*, UPV/EHU.
- (2014) Gabilondo Alberdi, Joseba. *New York Martutene*, UPV/EHU.
- (2015) Azurmendi Otaegi, Joxe. *Historia, arraza, nazioa*, Elkar.
- (2016) Uranga Álvarez, Mitxelko. *Mina, boterea eta egia*, Pamiela.
- (2017) Urretabizkaia, Arantxa. *Bidean Ikasia*. Pamiela.





## PREMIOS EUSKADI DE LITERATURA

## ENSAYO EN EUSKARA

2018

**Jurado:**

- Arantxa Urretabizkaia, presidenta
- Mitxelko Uranga, vocal
- Monika Madinabeitia, vocal
- Agurtzane Elordui, vocal
- Alberto López, vocal

**El ganador**

Ganador: Kepa Altonaga Sustatxa  
Título: *Patagoniara Hazparren barrena*  
Editorial: Pamiela

**Méritos destacados por el jurado**

La historia que Kepa Altonaga nos ofrece a los lectores en este libro es tan sorprendente como maravillosa. Nos cuenta una historia con ciertas reminiscencias de la influencia milenarista. En el esfuerzo de los vascos para fundar el nuevo País Vasco en América nos llevará de Bilbao a Hasparren; y de Hasparren a la Patagonia argentina, una y otra vez, yendo y viniendo.

Pero el libro va mucho más allá de lo acontecido en esa aventura. Da vida a las personas que dejaron atrás el País Vasco y, por lo tanto, es también un acercamiento a la diáspora vasca.

La ingente labor de investigación subyacente está presente en toda la obra, pero gracias a la habilidad del autor, el lector se sumergirá muy fácilmente en la historia. Porque la historia se cuenta de un modo que ha suscitado interés.

Y en lo tocante al modelo literario, asimismo, es una obra de arte; sin duda alguna. Escritura fácil, ágil, de estilo fresco y dinámico pero, a su vez, profundo. Demuestra una gran habilidad, además, para utilizar las alusiones correctamente e insertarlas de modo que contribuyan a enriquecer el texto. Con frecuencia, en un modelo que nos ofrece ecos del dialecto labortano, Altonaga muestra una gran maestría para introducir términos y construcciones propias de su dialecto vizcaíno natal.

**Kepa Altonaga Sustatxa**

1958, Loiu.

Estudió Biología en la Universidad del País Vasco. Es profesor de Zoogeografía y Zoología de Invertebrados No Artrópodos en la Facultad de Ciencia y Tecnología. El Parlamento Vasco concedió el premio Munibe a su grupo de investigación en el año 1992.

Libros publicados: *Folin markesa: marraskiloak eta euskaldunak uharte galduan* (Elhuyar, 1998), *Armand David, pandaren aita* (Elhuyar, 2001), *Etxepare, Aldudeko medikua* (Euskaltzaindia/EHU-UPV, 2006), *Darwin*



*geurean* (Pamiela, 2010), *Arnaut Abadiaren zoo ilogikoa* (Pamiela, 2011) y *Back to Leizarraga* (Pamiela, 2015).

### ***A la Patagonia por Hazparne***

Partiendo de un recuerdo y a través de Obaba, nos acercaremos a los tiempos de Lotilandia de la mano de Kepa Altonaga. Tenemos al lado ese mundo, pero se nos han vuelto totalmente desconocidos sus rincones y habitantes, y hemos olvidado su historia.

Dos hombres destacan en esta obra titulada *Patagoniara Hazparnen barrena. Lotilandiakoak herri birlandatuan*. El bilbaíno Florentzio Basaldua (1853-1932) ostenta el principal protagonismo: emigra muy joven a América, en cuyas extensas llanuras pretende construir un nuevo País Vasco. El garaztarra Janpierre Arbelbide (1841-1905) es su contrapunto: escribió “hori ez da amets bat beizik” (*eso no es más que un sueño*), pero quiere predicar a los vascos emigrados a América.


*Patagoniara Hazparnen barrena. Lotilandiakoak herri birlandatuan* es un libro intrigante y profundo, en el que encontraremos tanto aquella enorme oleada de gente que fluyó hacia las Américas —entre ellos el médico Daniel Lizarralde, la maestra lapurtarra Juana Canut, los bertsolaris Otaño y Mendiaga o la ezpeletarra Agnes Souret, que fue primera miss Francia— como, por otra parte, quienes se quedaron en este país de lágrimas de Betiri Sants.

### **Vencedores de ediciones anteriores**

- (2010) Azurmendi Otaegi, Joxe. *Azken egunak Gandiagarekin*, Elkar.
- (2011) Sarrionaindia, Joseba. *Moroak gara behelaino artean?*, Pamiela.
- (2012) Mujika Iraola, Inazio. *Xabier Lete (Auto)biografia bat*, Alberdania.
- (2013) Sudupe Martija, Jon. *Oi Europa!*, UPV/EHU.
- (2014) Gabilondo Alberdi, Joseba. *New York Martutene*, UPV/EHU.
- (2015) Azurmendi Otaegi, Joxe. *Historia, arraza, nazioa*, Elkar.
- (2016) Uranga Álvarez, Mitxelko. *Mina, boterea eta egia*, Pamiela.
- (2017) Urretabizkaia, Arantxa. *Bidean Ikasia*. Pamiela.



Irabazlea - Ganador: **Kepa Altonaga**  
Izenburua - Título: ***Patagoniara Hazparnen barrena***  
Argitaletxea - Editorial: **Pamiela**





## EUSKADI LITERATURA SARIAK

## EUSKARAZKO LITERATURA ITZULPENA

2018

**Epaimahaia**

- Isabel Etxeberria epaimahaiburua
- Gidor Bilbao epaimahaikidea
- Gotzon Lobera epaimahaikidea
- Idoia Santamaria epaimahaikidea
- Bakartxo Arrizabalaga epaimahaikidea

**Irabazlea eta sariaren nolakoa**

Irabazlea: Irene Aldasoro Katarain  
Izenburua: *Gailur Ekaiztsuak* (Emily Brontë)  
Argitaletxea: Erein & Igela

18.000 euroko saria.

**Epaimahaiak ikusitako merituenak**

Euskadi literatura-sarietako 2018ko deialdian, Euskarazko Literatura Itzulpena modalitateko epaimahaiak aho batez erabaki du Irene Aldasoro andreak euskaraturiko Emily Brontëren *Gailur Ekaiztsuak* lana saritzea. Epaimahaiak azpimarratu nahi du 2017an argitaraturiko hainbat euskarazko literatura itzulpenen kalitate onak are gehiago gailentzen duela Irene Aldasororen itzulpen-lanaren bikaintasuna.

Epaimahaiak erlojugile saiatuaren lanarekin konparatu du Irene Aldasorok Emily Brontëren nobela euskaratzean eginikoa: XIX. mendeko Yorkshireko paramoetako unibertsoa euskaraz biziartzeko, lortu du egitura konplexuak, esan nahi baita esaldi konplexu eta luzeak, erraz ibiltzea, irakurlea konplexutasunaz ohartu gabe; lortu du irakurleak bereizi ahal izatea pertsonaien hizkuntz erregistro desberdinak (are Joseph morroiaren erregistro dialektala), irakurketa tratatu gabe, hizkera bizi eta sinesgarrian; ez da lorpen makala, XIX. mendeko Ingalaterra viktoriarreko erreferentzia kulturalak euskal irakurlearentzat zehaztasunez ematea, lanean zehar baliabide desberdinak txandakatuz.

Euskarazko Literatura Itzulpenaren Euskadi Sarietako epaimahaiaren ustez, Irene Aldasorok lortu du XIX. mendeko Yorkshireko *Gailur Ekaiztsuak* XXI. mendeko irakurle euskaldunarentzat gozagarri izatea, eta literatura unibertsoa, beste behin ere, euskarazko prosagintzarentzat aberasgarri izatea.

**Irene Aldasoro**

Idiazabal, 1955.

Itzultzaile autonomoa, alor ugari jorratu ditu bere lan-ibilbidean. Ikus-entzunezkoetan eta hiztegi-gintzan aritutakoa da, eta lege-testuak eta zientzia-liburuak ere itzuli ditu. Literatur itzulpenean, besteak beste,



James Joyce, Henry James eta D.H. Lawrence-aren lanak euskaratu ditu. Joycere-  
ren Dublindarrak lanari esker Euskadi Itzulpen Saria eskuratu zuen 2000. urtean.

### **Gailur Ekaiztsuak**

Umetatiko lehen amodio bortitz, ero, galgarri, menderaezin baten historia da *Gailur Ekaiztsuak*. Minbizi bihurtutako bizi-min baten historia. Heathcliff da nobelaren ardatza. Machiavellorekin eta Sadeko Markesarekin lotu izan dute pertsonaia hori. Obsesio baten kontakizuna dugu, beraz, eleberria.

Catherine Earnshawk bazter uzten duenean bere anaiorde Heathcliff –ijitokume bat, aitak Londrestik ekarria eta etxean hazia- Edgar Lintonekin ezkontzeko, Heathcliff urrundu egingo da, baina bi helburu hauek betetzera itzuliko da: Earnshawtarren etxea bereganatu, bere umetako maitearengandik hurbil egoteko, baina, batez ere, jabetzak ematen dion botereaz bere indarra erakusteko.

Amodio destainatu baten istorioa da, beraz, *Gailur Ekaiztsuak*, baina hori baino gehiago ere aurkituko dugu eleberri honetan: amodio gutxietsiak eragindako mendeku baten kontakizuna, pasio menderaezin batena, baretu ezineko min bizi batena.

### **Aurreko edizioetako irabazleak**

- (1997) Morales, Jose, *Gure garaiko heroia*, Lermontov, M.J., Ibaizabal arg.
- (1998) Muñoz, Jon, *Harreman arriskutsuak*, Declos, Ibaizabal arg.
- (1999) Garzia Garmendia, Juan, *Ipuin hautatuak*, Borges, J.L., Ibaizabal arg.
- (2000) Aldasoro, Irene, *Dublindarrak*, Joyce, J., Alberdania.
- (2001) Zabaleta, Josu, *Fantasiatzko ipuinak*, Maupassant, G Ibaizabal arg.
- (2002) Mendiguren, Iñaki, *Harri Potter eta sekretuen ganbera*, Rowling J. K., Elkarlanean.
- (2003) Navarro, Koro, *Zortzi kontakizun*, Bashevis Singer Isaac, Alberdania. Elkarlanean.
- (2004) Garikano, Antton, *Bederatzietatik bederatzietara*, Leo Perutz, Alberdania & Elkar.
- (2005) Zabalo, Karlos, *Parisen sabela*, Alberdania & Elkar.
- (2006) Olarra, Xabier, *Estilo ariketak*, Igela.
- (2007) Rey, Fernando, *Pereirak dioenez*, Igela.
- (2008) Zabaleta, Josu, *Gaueko gezurrak*, Alberdania & Elkar.
- (2009) Olano, Antton, *Ilargi-harria*, Alberdania & Elkar.
- (2010) Mendizabal, Jesús Mari, *Eguzki kolpea*, Alberdania-Elkar.
- (2011) Zabala, Karlos, *Zubi bat Drinaren gainean*, Elkar.
- (2012) Olarra, Xabier eta Royo, Arantzazu, *Jakobian eraikina*, Igela.
- (2013) Mendiguren, Iñaki eta Turtle, Sarah. *Tom Sawyer-en abenturak*. Alberdania-Erein-Igela.
- (2014) Roque, Iñigo. *Gauzen ordena naturala*. Alberdania-Erein-Igela.
- (2015) Garzia, Juan. *Sonetoa*, Aztarna
- (2016) Olarra, Xabier. *Ulises*, Igela.
- (2017) Mugica, Marias. *Testamentua (François Villon)*. Erein & Igela



## PREMIOS DE LITERATURA EUSKADI TRADUCCIÓN LITERARIA AL EUSKERA

### 2018

#### Jurado

- Isabel Etxeberria, presidenta
- Gidor Bilbao, vocal
- Gotzon Lobera, vocal
- Idoia Santamaria, vocal
- Bakartxo Arrizabalaga, vocal

#### La ganadora y el premio

Ganadora: Irene Aldasoro Katarain  
Título: *Gailur Ekaiztsuak* (Emily Brontë)  
Editorial: Erein & Igela

Premio de 18.000 euros.

#### Méritos destacados por el jurado

En los Premios Euskadi de Literatura 2018, en la modalidad de Traducción Literaria en Euskera, el jurado ha acordado por unanimidad conceder el premio a *Gailur Ekaiztsuak*, la traducción al euskera realizada por Irene Aldasoro de la novela de Emily Brontë. El jurado ha querido remarcar que la calidad de varias de las traducciones literarias realizadas al euskera que se publicaron en el 2017 resalta aún más la perfección del trabajo como traductora de Irene Aldasoro.

El jurado ha comparado con la labor del relojero paciente el trabajo realizado por Irene Aldasoro al traducir la novela de Emily Brontë al euskera: nos ha permitido vivir los páramos de Yorkshire del siglo XIX en euskera; ha conseguido aunar fácilmente unas estructuras complejas, un significado e incluso unas frases complejas y largas sin que el lector se percate de su complejidad; ha conseguido que el lector pueda diferenciar los diferentes registros lingüísticos de los personajes (incluso el registro dialectal del criado Joseph) sin entorpecer la lectura, con un lenguaje vivo y creíble; constituye un gran logro ofrecer al lector vasco las referencias culturales detalladas de la Inglaterra victoriana del siglo XIX alternando en su trabajo diferentes recursos.

Según el jurado de los Premios Euskadi de Literatura de la modalidad de traducción literaria en euskera, Irene Aldasoro ha conseguido por un lado que el lector vasco del siglo XXI disfrute con la novela *Gailur Ekaiztsuak* ambientada en el Yorkshire del siglo XIX, y, por otro lado, que la literatura universal, una vez más, resulte enriquecedora para la prosa en euskera.

#### Irene Aldasoro

1955, Idiazabal.

Traductora autónoma que ha cultivado diversos campos a lo largo de su recorrido profesional. Ha trabajado en el mundo audiovisual y ha participado en la elaboración de diccionarios. Así mismo, ha traducido textos legales y libros científicos. Entre la traducciones literarias al euskera que ha realizado, destacan, entre





otras, obras de James Joyce, Henry James y D.H. Lawrence. Gracias a *Dublindarrak*, la traducción de la obra de Joyce, obtuvo en el año 2000 el premio Euskadi de Traducción.

### **Gailur Ekaiztsuak**

*Gailur Ekaiztsuak* narra la historia de un primer amor de la infancia intenso, insensato, perjudicial e incontrolable. La historia de unas ansias de vivir que derivan en un dolor intenso. Heathcliff es el eje de la novela. Este personaje ha sido comparado con Maquiavelo y con el Marqués de Sade. La novela, por lo tanto, es el relato de una obsesión.

Cuando Catherine Earnshaw deja a un lado a su hermanastro Heathcliff –hijo de gitanos, cuyo padre adoptivo lo trajo desde Londres y que ha crecido en casa– para casarse con Edgar Linton, Heathcliff se distancia, pero volverá para cumplir con dos objetivos: apropiarse de la vivienda de Earnshawtar para poder estar cerca de su amor de la infancia; pero, sobre todo, para demostrar su fuerza con el poder que le otorga la propiedad.

Por lo tanto, *Gailur Ekaiztsuak* es la historia de un amor desdeñado; pero en esta novela encontraremos algo más: el relato de una venganza derivada de amores despreciados, el relato de una pasión incontrolable, de un dolor intenso que no se puede calmar.

### **Premios de anteriores ediciones**

- (1997) Morales, Jose, *Gure garaiko heroia*, Lermontov, M.J., Ibaizabal arg.
- (1998) Muñoz, Jon, *Harreman arriskutsuak*, Declos, Ibaizabal arg.
- (1999) Garzia Garmendia, Juan, *Ipuin hautatuak*, Borges, J.L., Ibaizabal arg.
- (2000) Aldasoro, Irene, *Dublindarrak*, Joyce, J., Alberdania.
- (2001) Zabaleta, Josu, *Fantasiatzko ipuinak*, Maupassant, G Ibaizabal arg.
- (2002) Mendiguren, Iñaki, *Harri Potter eta sekretuen ganbera*, Rowling J. K., Elkarlanean.
- (2003) Navarro, Koro, *Zortzi kontakizun*, Bashevis Singer Isaac, Alberdania. Elkarlanean.
- (2004) Garikano, Antton, *Bederatzietatik bederatzietara*, Leo Perutz, Alberdania & Elkar.
- (2005) Zabalo, Karlos, *Parisen sabela*, Alberdania & Elkar.
- (2006) Olarra, Xabier, *Estilo ariketak*, Igela.
- (2007) Rey, Fernando, *Pereirak dioenez*, Igela.
- (2008) Zabaleta, Josu, *Gaueko gezurrak*, Alberdania & Elkar.
- (2009) Olano, Antton, *Ilargi-harria*, Alberdania & Elkar.
- (2010) Mendizabal, Jesús Mari, *Eguzki kolpea*, Alberdania-Elkar.
- (2011) Zabala, Karlos, *Zubi bat Drinaren gainean*, Elkar.
- (2012) Olarra, Xabier eta Royo, Arantzazu, *Jakobian eraikina*, Igela.
- (2013) Mendiguren, Iñaki eta Turtle, Sarah. *Tom Sawyer-en abenturak*. Alberdania-Erein-Igela.
- (2014) Roque, Iñigo. *Gauzen ordena naturala*. Alberdania-Erein-Igela.
- (2015) Garzia, Juan. *Sonetoa*, Aztarna.
- (2016) Olarra, Xabier. *Ulises*, Igela.
- (2017) Mugica, Marias. *Testamentua (François Villon)*. Erein & Igela.



Irabazlea / Ganadora: **Irene Aldasoro**  
Izenburua / Título: ***Gailur Ekaiztsuak (Emily Brontë)***  
Argitaletxea / Editorial: **Erein & Igela**

